

# Arrasateko Udal Biblioteka

## MEMORIA 2023



## AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	3
HISTORIA ETA EBOLUZIOA.....	4
BAZKIDEAK.....	5
BILDUMA.....	6
MAILEGU ZERBITZUA.....	8
ELIBURUTEGIA PLATAFORMA DIGITALA.....	13
ERABILTZAILEEN ESKAERAK.....	14
LIBURUTEGIEN ARTEKO MAILEGUA.....	15
TOKIKO BILDUMA.....	16
LAN TEKNIKOAK.....	16
JARDUERAK.....	17
INTERNET ETA ORDENAGAILUEN ZERBITZUA.....	21
WEB ORRIA ETA SARE SOZIALAK.....	22
IRAKURKETA SUSTATZEKO JARDUERAK.....	23
HELDUAK.....	23
LITERATURA SOLASALDIAK.....	23
IPUIN KONTAKETAK.....	25
IDAZKETA TAILERRAK.....	26
HITZALDIAK.....	26
HAURRAK ETA FAMILIAK.....	28
IPUIN KONTAKETAK.....	28
ANTZERKIA.....	30
TAILERRAK.....	30
MINTZOAN KUX-KUX.....	31
OROKORRAK.....	32
‘HOSTOZ HOSTO ERANTZI’ ERAKUSKETA.....	32
LIBURUAREN EGUNA 2023.....	33
BIBLIOTEKAREN EGUNA 2023.....	35
BIBLIOPORRAK ETA NEGUKO GIDA.....	38
2023/2024 IKASTURTEKO ESKAINTZA IRAGARTZEKO TRIPTIKOA.....	39
IRAKUR PUNTUA.....	40
INTERES GUNEAK.....	40
IRAKURKETA ERRAZECO IRAKURLE TALDEAK.....	41
BISITA GIDATUAK.....	42
SANTA MARINAKO AUZO BIBLIOTEKA EZAGUTARAZTEKO KANPAINA.....	44
POLTSAK ETA BOLIGRAFOAK.....	45
JARDUERAK ZENBAKITAN.....	45
ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA.....	46
LANTALDEA.....	49
INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK.....	51
FINANTZAKETA.....	53
LIBURUTEGI PUBLIKOEN ESTANDARREN BETETZE MAILA.....	56
ONDORIOAK ETA LAN LERROAK.....	57
BIBLIOGRAFIA.....	58

## AURKEZPENA

Memoria epe motzerako balio duen kudeaketa-baliabide bat da, funtsezko tresna gardentasuna emateko erakunde bati eta haren jardueri. Kudeatzen ditugun zerbitzuen berri ematen du, herritarrak informazioa jasotzeko eskubidea baitu. Hori da, hain zuzen, txosten honen helburu nagusia: 2023. urteko bibliotekako argazkia erakustea.

Memoria honek alderdi prospektiboa ere badu, etorkizunean hobetzeko proposamenak ere jasotzen baitira. Bibliotekako lankide denen partehartzean oinarritzen da, bakoitzak bere ardurapean dituen esparruen datuak eta ebaluazioak jaso baititu eta hortik abiatu gara ondorioak eta ekarpenak biltzeko orduan.

Memoria honetan jaso ditugun datuak landu dira Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 2012an argitaratu zuen eta indarrean dagoen *Euskadiko liburutegi publikoen estandarrak* dokumentua kontuan hartuta. Estandar hauek udalerrri bakoitzean lortu beharreko parametroak definitzen dituzte, bertan dauden liburutegi eta zerbitzugune guztiak zenbatuta.

Beraz, datu guzti hauek eta talde-lanaren helburu adostuek eta hausnarketek markatuko dizkigute aurrerantzean jarraitu beharreko lan ildo nagusiak.

Bidean ikasi duguna partekatu nahi dugu, emaitzak argitaratu eta sarean zintzilikatu ere, norbaiti lagungarri bazaio.

**Bibliotekako lantaldea**

Arrasate, 2024ko martxo

## HISTORIA ETA EBOLUZIOA

Arrasateko udal biblioteka 1966an sortu zen, Garibai etxean. 1987an Monterron Jauregia aldatu zen eta bertan bi hamarkadetan zehar eskaini zituen bere zerbitzuak. Denbora horretan izandako espazio eta irisgarritasun arazoak konpondu egin ziren San Frantzisko komentua zaharberitzean, egungo udal kultur etxea (Kulturate) eta Udal Bibliotekaren egoitza izan zedin. Birgaitze horretan, liburutegirako espazioak horretarako diseinatu ziren, eta 2007an egungo instalazio modernoak inauguratu ziren, 1.600 m<sup>2</sup> inguruko azalerarekin.

Liburutegiak bigarren zerbitzugune bat du 1991tik, Toki Argi eraikinean Santa Marinako auzo biblioteka dugu, bereziki haur eta gazteei zuzenduta, baina azken urteetan helduei begira ere oinarritzko zerbitzu batzuk ematen ari dena.

2004. urtean, bi udal liburutegi hauek Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean (EIPS) sartu ziren, eta, ordutik aurrera, Absysnet hartu zen lan-tresna gisa, elkarlaneko online katalogoan parte hartuz.



*Garibai etxea, Monterron Jauregia, Kulturate eta Santa Marina*


Bibliotekak sarbide libreko espazio kulturalak direnez, babes lekuak ere badira, adibidez errekurtsio gutxi dituzten pertsonentzat. Horregatik azken urteotan gure lanak zeregin soziala ere badu. Erabiltzaileekin gerta litezkeen gora-beherei aurre egiteko, ordenantza baten beharra ikusi dugu. Araudiak betebeharrak eta eskubideak jasoko ditu eta, neurri batean, langileen segurtasun juridikoa handitzeko balioko du. Araudia amaituta, administrazioak eskatzen dituen urratsak betetzen gabiltza, laster udal osoko bilkuran onartu eta GAO-n argitaratzeko.

## BAZKIDEAK


Goranzko joerarekin jarraitzen dugu bazkide kopuruari dagokionez. Egun, 13.014 herritar dira bibliotekako bazkide, beraz, esan genezake **Arrasateko biztanleriaren % 60a bibliotekako bazkide** dela, iaz baino lau puntu gehiago.

\*Liburutegi Zerbitzuak 2021. urtean udal biblioteka guztietako bazkideen garbiketa egin zuen eta ezabatu zituen azken 10 urteetan mailegu zerbitzua erabili ez zuten bazkide guztiak. Hori da arrazoia 2021ean bat-bateko jaitsiera egoteko gure bazkide kopuruan.


### Bazkideak Kulturaten




### Bazkideak Santa Marinan



### Bazkide berriak



### Bazkideak irakurle motaka




## BILDUMA

Biztanleko 2 dokumentu egokitzen zaizkio Arrasateri sarbide libreko funtsetan Euskadiko liburutegi publikoen 2012ko estandarren arabera. Arrasatek 21.693 biztanle dituela kontuan hartuta, sarrera libreko bilduma 43.386 dokumentu ingururekin osatu beharko litzateke.


Helduen bibliotekan, haur eta gazte bibliotekan eta Santa Marinako auzo bibliotekan dauden sarbide libreko dokumentuen baturak 55.087 ematen du. Beraz, ondorioztatu dezakegu betetzen dugula bildumaren tamainari dagokion parametroa; baina adierazle honek ez digu azaltzen bilduma gaurkotua dagoen ala ez. Adierazle hau, beraz, erlazionatuta dago urtero erosi beharreko dokumentu kopuruarekin. Bilduma gaurkotua mantentzeko, urtero bildumaren % 10 berritu behar da eta, era berean, bildumaren % 10 xahutu. Beraz, urtero 4.338 dokumentu eskuratu beharko genituzke. 2023ean 3.474 eskuratu dira, hau da, bilduma % 8a berritu dugu. Gure bibliotekako zerbitzu gutunean ere jasota dagoen konpromisoa da bildumaren % 10 berritzea.

Bildumak etengabeko aldaketak izaten ditu, komunitatearen interesak aldatzen direlako, gaiak zaharkitu eta liburuak hondatzen direlako. Xahuketak ahalbidetzen digu erabiltzaileentzat garrantzitsua, erakargarria eta erabilgarria den bilduma bat izatea. 2023an 1.690 dokumenturi baja eman diegu eta honekin, sarbide libreko bildumatik % 3,06 xahutu dugu.


### Bilduma Kulturaten: 68.679 dokumentu




### Bilduma Santa Marinan: 6.846 dokumentu




### 3.474 dokumentu berri 2023an



### 3.474 dokumentu berri 2023an jatorriaren arabera




### Bilduma kokagunearen arabera




Hurrei zuzendutako dokumentuak bildumaren %30 izatea komeni da eta gazte eta helduentzako dokumentuak % 70. Adierazle hau ondo betetzen dugu Arrasaten.

### Helduentzako bilduma hizkuntzaren arabera



### Haurrentzako bilduma hizkuntzaren arabera




Euskaraz argitaratzen denari arreta berezia jartzen diogu. Eusko Jaurlaritzak egindako Euskarazko argitalpenei buruzko XVII. txostenaren arabera, testu-liburuak alde batera utzita, haur eta gazte literatura da euskarazko literatur argitalpenen industriaren zati garrantzitsuena (% 30), helduentzako fikzioa gero (% 14,5) eta, azkenik, fikziozkoak ez diren liburuak (% 14). Liburu bildumak ditugu beste hizkuntzetan ere haur zein helduentzat: ingelesez, frantsesez, arabieraz, urduz, italieraz edo portugesez, besteak beste.

## MAILEGU ZERBITZUA


Liburuen mailegua da liburutegiek duten funtsezko eginkizuna. 2023an liburuen mailegua % 4a igo da. Hala ere, azken urteetan gizartean eman diren ohitura aldaketak direla eta, ikus-entzunezkoen maileguaren bilakaerak beheranzko joera erakutsi du eta neurri batean plataforma digitaletan hartu diote erreleboa. Azken 4 urteetan % 60a jaitsi da pelikulen mailegu kopurua. Aipatu behar da azken urteotan ikus-entzunezko ekosistema berri baten aurrean gaudela, izan ere, harpidetza-plataformen arrakastak markatu du ikus-entzunezkoen produkzioak izan duen aldaketa, non plataforma digitalak geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari diren. Netflix, HBO, Filmin ala Disney+ bezalako plataforma digital ordainduak ohikoak bihurtu dira zinea kontsumitzeko ohituretan eta, ondorioz, musika eta zine ekoizleek gero eta produktu gutxiago kaleratzen dute salmentarako.

Bestalde, eskola liburutegien gabeziari erantzuteko, herriko ikastetxeak hornitzen ditugu mailegu berezietan; hain zuzen, 2023. urtean 1.405 dokumentu mailegatu dizkiegu.







### Maileguak Santa Marinaran



### Helduentzako liburuen maileguak hizkuntzaka




### Haur eta gazteentzako liburuen maileguak hizkuntzaka



## Mailegatuenak

### Helduentzako liburuak




### Helduentzako liburuak euskaraz




## Haurrentzako liburuak




## Gazteentzako liburuak



## Helduentzako pelikulak



## Haurrentzako pelikulak




## eLIBURUTEGIA PLATAFORMA DIGITALA

Euskadiko Irakurketa Sare Publikoak eLiburutegia plataforma eskaintzen du, 44.186 dokumentuz osatua. Honen bidez, maileguan hartu daitezke liburu elektronikoak, online pelikulak, audio liburuak eta aldizkari elektronikoak.


Maileguei dagokionez, azken urteetako errealitate berrien eta pandemiaren eraginez, mailegu digitala asko hazi eta hedatu da. Pandemiak bultzada handia eragin zion plataforma digitalaren mailegu zerbitzuari, 2020an gorakada handia izan baitzuen.

Berriz, 2021etik hona, datuek erakusten dute erabilera ez dela hazi.

### Dokumentuak eLiburutegian



### Maileguak eLiburutegian




The screenshot shows the eLiburutegia website interface. At the top, there is a logo and the text 'eLiburutegia' and 'euskadi.eus'. Below the logo, there is a search bar with the text 'Tituluagatik edo egileagatik bilatu' and a 'Bilatu' button. The main content area is divided into two sections: 'Gaikakoak' (Popular) and 'Gomendioak' (Recommendations). The 'Gaikakoak' section lists various categories and their counts, such as 'Abenturazko eleberria (234)', 'Artea, zinea eta argazkigintza (251)', 'Beldurrezko eleberria (130)', 'Bidaia liburu eta gidak (307)', 'Biografiak (761)', 'Eleberri beltza eta intrigazkoa (1497)', 'Eleberri erotikoa (123)', 'Eleberri erromantikoa (889)', 'Eleberri historikoa (566)', 'Eleberria (6912)', 'Etvea, eskulanak eta beste zaletasunak (190)', 'Filosofia eta erlijioa (709)', 'Gizarte zientziak, hezkuntza eta politika (1012)', 'Haur eta gazte literatura (2772)', 'Haur eta gazteentzako ez fikzioa (265)', 'Historia (573)', and 'Hizkuntza eta literatura (1467)'. The 'Gomendioak' section displays four book covers: 'Amodio zoroak' by Belmonte Fernández, 'Cuentos para re...' by Mariscal, Enrique, 'El mayor Petti...' by Simonson, Helen, and 'Enamorar(se)' by Amorasa, Carmen. The bottom of the page shows a navigation menu with 'eu', 'es', 'en', 'eLiburutegia', 'Katalogoa', 'Laguntza', 'Zinema', and 'Aldizkariak'.

eLiburutegia plataforma interneten: <http://www.eliburutegia.euskadi.eus>

## ERABILTZAILEEN ESKAERAK

Bibliotekan egunero jasotzen ditugu eskaerak, aurrez aurre eta online. Saiatzen gara ahal dugun azkarren erantzuten, eta gainera, ahalegintzen gara erantzun hori positiboa izan dadin. Dokumentu batzuk erosi egiten ditugu, beste batzuk liburutegien arteko maileguaren bidez lortzen ditugu, badira formatu digitalean eskuratzen ditugunak ere eLiburutegiaren bitartez eta gutxi batzuk ezeztatu egiten dira.

2023an **1.180** eskaera jaso ditugu, aurreko urtean baino % 14 gehiago. Erabiltzaileen eskaerei eman zaien baiezeko erantzunak guztira % 95 dira eta ezeztapenak soilik % 5. Zerbitzu Gutunean jasotakoaren arabera, eskaeren % 85 eskuratzea da bibliotekaren konpromisoa, eta, bistan denez, egun, helburu hori aise betetzen dugu.



## LIBURUTEGIEN ARTEKO MAILEGUA


Bibliotekak espazio eta aurrekontu mugatuak ditu, eta beraz, ezinezkoa da erabiltzaileek izan ditzaketen eskari guztiak bertako bildumarekin asetzea. Eskari hauei erantzuteko modu bat liburutegien arteko mailegu zerbitzua da.

Autonomia erkidegoan Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzuak kudeatzen du liburutegien arteko mailegua, eta gainera, bere gain hartzen du zerbitzuaren gastua. Ondorioz, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea osatzen dugun 286 bibliotekok kosturik gabe jaso eta bidaltzen ditugu liburuak eta bestelako materialak liburutegi batetik bestera, erabiltzaileen beharrak asetzeko.

Arrasaten, erkidegoko sare honetatik kanpo ere eskatzen ditugu dokumentuak, bereziki Estatuko bi sare nagusienetan: biblioteka publikoen sarean eta biblioteka unibertsitarioen sarean. Kasu honetan, udal liburutegiak bere gain hartzen ditu bidalketaren gastua eta zerbitzuaren kostua ere bai (liburu bakoitzeko 8 euro inguru).

Gure bazkideek liburutegien arteko mailegu zerbitzua bikain baloratzen dute, eta erabilera handia du, geroz eta handiagoa. Bidalitako dokumentuen kopurua % 16 hazi da azken urtean, eta eskatutakoena % 22.

Datuetan garbi ikusten denez, Arrasateko bibliotekak bidaltzen duen dokumentuen kopurua eskatzen duena baino askoz handiagoa da, ia hirukoitza, eta horrek esan nahi du kalitatezko bilduma daukagula, anitza eta erabiltzaileen beharrei egokitu.



Bildumaren kalitatearen adibide da, hain zuen, Estatutik ere jasotzen ditugula liburu eskaerak; aurten, Badajoz, Ciudad Real eta Leongo biblioteka publikoei eman diegularik zerbitzua.

Bestalde, aipatu beharra dago Kulturete eta Santa Marinako auzo bibliotekaren artean liburutegien arteko mailegu zerbitzua eskaintzen dela eta erabiltzaileek eskatutako dokumentuak egun batetik bestera ekarri eta eramaten ditugula. Bi liburutegien arteko dokumentu mugimendu hau gero eta handiagoa da, esaterako aurten 111 eskaera erantzun dira.

Erabiltzaile partikularren eskaerei erantzuna emateaz gain, herriko erakunde desberdinen irakurketa klubak ere hornitzen ditugu. Bibliotekan bertan 4 talde ditugu: euskarazko solasaldien taldea, gaztelerazkoa, ingelesezkoa eta komiki kluba. Bibliotekatik kanpo, beste

6 irakurle taldeekin lankidetzan gabiltza: Aita Menni ospitaleko bi talde, San Juan de Dioseko beste bi, Fundación Goyenecheko talde bat, Arizmendi-Gaztelupeko beste bat eta Emakume Txokoko irakurketa feministen gunearekin.

## **TOKIKO BILDUMA**

Tokiko Bilduma bibliotekaren altxor preziatua da, bildumarik bereziena delako, eta bakarra. Bertan biltzen ditugu herriko egileen lanak edota herriari buruzko informazio anitza. Guztira 2.721 dokumentu daude, material mota desberdinetakoak: liburuak, aldizkariak, cdak eta bideoak. Kopuru honi gehitu behar zaizkio beste material batzuk, beraien izaera bereziarengatik ez direnak bibliotekako sistema informatikoan gordetzen: kartelak, jai-programak, esku-orriak, postalak, egutegiak edota artxibo pertsonalak. Artxibo hauek Jose Letona, Jose Maria Uranga eta Juan Leibar filantropo arrasatearrek bibliotekari dohaintzan utzitako dokumentu pertsonalak dira, eta iturri historiko bezala balio handia dute.

2023. urtean 102 dokumentu gehitu dira Tokiko Bildumako funtsera. Hauetatik berriak, hau da, 2023an argitaratuak, 21 dokumentu izan dira: 16 liburu eta 5 disko.

Dokumentu berrien uzta oparoa izan da aurten, eta honi gehitu zaio herritarrek egindako emarien kopuru altua. Izan ere, Tokiko Bilduma osatzeko garrantzitsuak dira herritaren inplikazioa eta emariak, Arrasateren gaineko dokumentu interesgarriak lortzen baitira bide horretatik.

Azken urteetan Tokiko Bildumari bultzada eman nahian ari gara, eta ondorioz, hainbat lan eta jarduera garatu ditugu.

### **Lan teknikoak**

Burutu diren lan teknikoen baitan, hauek dira aipagarrienak:

- Herriko bildumaren kudeaketa politika definitzen ari gara. Honek balioko digu zehazteko, besteak beste, dokumentu bakoitzetik zenbat ale gorde behar diren, zer tratamendu tekniko eman behar zaien edota nola kontserbatu behar diren.
- Jai programak digitalizatzen hasi gara. Momentuz, San Juan jaietakoak digitalizatu ditugu, 1941 urtetik honakoak. Artxiboak Arrasanet datu basera txertatuko ditugu, eta bibliotekaren web orrian ere eskuragarri egongo dira kontsultarako.
- Pedro Uribarrena arrasatearrak bere argazki funtsaren parte bat ekarri digu dohaintzan. Momentuz, argazkiak digitalizatzen ari gara. Ondoren, hauek deskribatu eta bibliotekaren web orrian jarriko ditugu, herritarrek kontsultatzeko aukera izan dezaten.
- Gazteak kontratatuzko Lanbidek sustatzen duen programaren baitan, Udalak langile bat kontratatu du Industria Ondarearen datu baseari eta Tokiko Bildumari bultzada emateko. Bibliotekari dagokionez, artxibo pertsonalak digitalizatzea eta deskribatzea izango da bere lana.



## Jarduerak

Tokiko Bildumaren zabalkundea egiteko hainbat jarduera egin ditugu. Gainera, herriko talde eta ikerlariekin kolaborazioa ere landu dugu.

### 'AED: 40 urte' erakusketako gida eta lehiaketa

AED elkarteak 40 urte bete ditu 2023an eta ospatzeko, hainbat jarduera antolatu dituzte, tartean erakusketa bat Kulturaten. Beraiekin elkarlanean, gaiarekin lotutako dokumentuekin gida bat egin dugu, biblioteka goitik behera apaindu dugu Arrasateko euskararekin lotutako istorioekin, jolas bat egin dugu Instagrameko erabiltzaileei zuzenduta eta lehiaketa bat antolatu dugu herriko berben inguruan. Aipatzekoa da lehiaketan 500 lagunetik gora parte hartu dutela.

biblioteka			
<b>AED, 40 urte Arrasate euskalduntzen</b>			
Asmauko zeuke berba bakoxka bere irudixakin lotzen?			
1	2	3	4
5	6	7	8
Bixuae.....	Katamixarra.....		
Aitapuntakue/.....	Oreixe.....		
Amapuntakue.....	Ostarkue.....		
Larue.....	Takarraran.....		
	Libxarkerixia.....		
Izen-abizenak:			
Telefona:	Adina:		

*Lehiaketan parte hartzeko orria*



*Lehiaketako irabazleak saria jasotzen*

### 'Arrasate 1890-1940 Mondragón' liburuaren aurkezpena

Alberto Loiti ikerlariaren 'Arrasate 1890-1940 Mondragón' liburuan parte hartu du bibliotekak. Egindako lan nagusiak izan dira testuak orraztea, iturriak konfirmatzea, bibliografia osatzea eta liburua bera maketatzea. Liburua Arrasateko Udalak argitaratu du. Aurkezpena Kulturateko Areto Nagusian izan da, eta bertan parte hartu dute Alberto Loiti egileak, Josemari Velez de Mendizabal hitzaurregileak eta Olatz Bartolome bibliotekako langileak. Liburua Elkarren salgai jarri da eta ale guztiak agortu dira.



*Liburuaren aurkezpena*



*Areto Nagusia jendez lepo*

## Aurkezpena Iturbide Egoitzan

Liburuak herrian piztutako interes handia ikusirik, eta biltzen dituen argazkien garaia kontuan izanik, bigarren aurkezpen bat egin dugu herriko zaharren egoitzan. Bertan izan dira Alberto Loiti egilea bera, eta Adela Bikandi eta Olatz Bartolome bibliotekako langileak. Jarduera hunkigarria suertatu da, egoiliarrak kontu kontari aritu dira euren gogoetak partekatuz.



*Liburu aurkezpenaren bi momentu*



## Liburu aurkezpena Arrasateko Nagusien Kontseiluarekin elkarlanean

Arrasateko Pertsona Nagusien Asteko programaren baitan, bibliotekak 'Los alimentos ultraprocesados' liburuaren aurkezpena antolatu du ANKONekin elkarlanean. Egilea, Javier Sánchez Perona, jaiotzez arrasatearra da eta egun CSICen egiten du lan. Bere liburua herrian aurkezteko gonbitea oso pozik hartu du, 65 pertsona bertaratu dira hitzaldi-tailer honetara, horien artean Dietetika eta Nutrizioko graduako ikasleak.



*Pertsona Nagusien Asteko programaren aurkezpena*



*Egilea liburua aurkezten Areto Nagusian*

## Pintura gelako ikasleen artelana martxoaren 8a ospatzeko

Martxoaren 8a ospatzeko emakumea eta arteari buruzko interes gunea jarri dugula aprobetxatuz, pintura gelako ikasle gaztetxoek mural batzuk egin dituzte eta sarreran izan ditugu ikusgai hilabete osoan zehar.



*Muralaren egileak artelanak zintzilikatzen*

## Gabonetako lehiaketa

Hirugarren urtez jarraian, gabonetako lehiaketa antolatu dugu. Arrasateren gaineko interesa piztea da helburua, eta horretarako herriarekin lotutako zazpi galdera luzatu ditugu. Erantzunak bibliotekan bertan edo web orriaren bitartez emateko aukera egon da. Adin tarte guztietako 200 lagunetik gora hartu dute parte. Erantzun zuzenak eman dituztenen artean, 60 euroko 6 bonu banatu dira, Elkar liburu dendan erabiltzeko.

**Biblioteka**

**GABONETAKO LEHIAKETA**

**CONCURSO DE NAVIDAD**

**ZER EGIN BEHAR DA?**

- Formularioko 7 galderak erantzun (bibliotekan edo web orriaren bidez).
- Erantzunak 15etik urtariraren 7ra arte.
- 60 euroko 6 bonu (Elkar Arrasatean erabilgarriak). Bonuen erdia adin txiki-koentzat banago dira.
- Zuzenak eragotzi da galdera gurtiek oncio erantzuten dituztenen artean.
- Pasa gurtarokoa.

**¿QUÉ HAY QUE HACER?**

- Responder las 7 preguntas del Formulario (disponible en la biblioteca o en la web).
- Del 15 de diciembre al 7 de enero.
- 6 bonos de 60 euros para gastar en Elkar Arrasate. La mitad de los bonos serán para menores de edad.
- Se hará un sorteo entre las personas que respondan correctamente a todas las preguntas.
- Para todos los estados.

**ANIMATU PARTE HARTZERA!**

Arrasateko Udal Biblioteka  
www.erasateko-udalbiblioteka.eus  
Tel. 943 25 09 25  
biblioteka@erasateko.eus

Declaración de conformidad con el artículo 35 de la Ley de Protección de Datos

*Gabonetako lehiaketako kartela*



*Irabazleak saria jasotzen, Andoni Arratibel zinegotziaren eskutik*

### Tokiko Bildumaren erabilera







Erabilerari dagokionez, hemen datu aipagarrienak:

- Kontsulta gehien izan dituzten funtsak Letona, Uranga eta Leibar historialarien artxiboak izan dira.
- Debagoieneko Mankomunitateak laguntza eskatu digu garatzen ari diren proiektu baterako. Beraien web orrian Arrasateko ibilbide irisgarri bat diseinatu dute, turismo industrialarekin lotutakoa, eta aintzinako argazkiak eskatu dizkigute ibilbide hau ilustratzeko.
- Ohiko ikerlariak eta kontsulta partikularrak ere izan dira urte osoan zehar, besteak beste, argazki zaharren bila, baserrien edota herriko aldizkarien inguruko informazio bila.

## INTERNET ETA ORDENAGAILUEN ZERBITZUA

Bibliotekan modu autonomoan erabiltzeko ordenagailuak eta wifia daude. Interneten nabigatu daiteke edota ofimatika programak erabili. Eskaneatu eta inprimatu ere egin daiteke.

Santa Marinaran 2 ordenagailu eta inpresora daude erabilgarri. Wifi zerbitzua ere eskaintzen dugu.




Herritar guztiei teknologiarako sarbidea bermatzeko, 2023ko udazkenean zerbitzu berri bat jarri dugu martxan, aukera ematen duena ordenagailuak etxera maileguan eramateko. 5 ordenagailu jarri ditugu erabilgarri eta, irailetik abendura bitartean, 55 aldiz mailegatu dira.

## WEB ORRIA ETA SARE SOZIALAK

Bibliotekako web orrian albisteak, agenda, nobedadeak, online tramiteak eta zerbitzuen inguruko informazioa eskaintzen dugu: [www.arrasate.eus/biblioteka](http://www.arrasate.eus/biblioteka)


2023an udaleko web orri osoa eraldatu da, diseinu berriago eta zerbitzu hobego bat eskainiz. Bibliotekan ere, arlo guztiak berritu ditugu itxuran eta edukian.



Bibliotekako web orria: <http://www.arrasate.eus>

Web orriaren lekualdatzearen ondorioz, ezin izan ditugu aurtengo erabilera datuak bildu.

\* 2020an eman zen gorakada izugarriaren arrazoia da, biblioteka itxita egon zela hilabeteetan pandemiaren ondorioz, eta erabiltzaileengana iristeko modu nagusia bilakatu zela web orria.



Sare sozialei dagokienez, 2.131 jarraitzaile inguru ditugu Facebook, Twitter eta Instagram aplikazioetan.

## IRAKURKETA SUSTATZEKO JARDUERAK

---

### HELDUAK

---

#### Literatura solasaldiak

Gure irakurle komunitatean arrakastatsuak dira eta liburutegi askotako erreferenteak. Gure irakurle komunitatean arrakastatsuak dira eta liburutegi askotako erreferenteak. 2001 ekin genion euskarazko eta gaztelaniazko saioak antolatzeari, ondoren ingelesezko solasaldiak etorri dira eta aurten komiki kluba gehitu dugu.

Euskarazko solasaldietan Alex Gurrutxaga aritu da koordinazio lanetan eta idazle hauek izan ditugu gonbidatu berezi bezala: Patxi Zubizarreta, Fernando Rey eta Angel Erro.

Gaztelaniazkoetan bi ziklo ditugu: *Literatura en lengua castellana* Ane Zapatero koordinatzailearekin eta *Curso de literatura europea* Luisa Etxenikerekin. Jokin Muñoz idazlea gonbidatu dugu azken saioan.

Ingelesezko solasaldietan Jessica Oleaga izan da koordinatzailea urtearen lehen zatian eta, udazkenetik aurrera, John Costellok bete du funtzio hori.

Eta 2023ko udazkeneko berritasuna izan da Joseba Gómez komiki-gidoilari gasteiztarrarekin antolatu dugun zikloa.

Solasaldiak	Saio kopurua	Taldeko partaide kopurua
Euskaraz	8	24
Gaztelaniaz	8	30*
Ingelesez	5	20
Club de cómic	3	21

\* Itxaron zerrenda egon da.



*John Costelloekin ingelesezko solasaldietan*



*Angel Erro idazlea euskarazko literatura solasaldietan*



*Luisa Etxenike gaztelaniazko solasaldietan*





*Joseba Gómez komiki solasaldietan*

## **Ipuin kontaktak**

### Ahoz aho 2023

Intujai Teatro taldeak urtero antolatzen du ‘Ahoz aho’ ahozketasunaren jaialdia. Aurtengoa 16. edizioa izan da eta bertan parte hartzea proposatu digute oraingoan ere. Horri esker, nazioarteko kontalariak izan ditugu: Yoshi Hioki japoniarra Kulturaten eta Zoa Meza nikaraguarra Santa Marinako auzo bibliotekan.



*Yoshi Hioki kontalaria*

### Heldu da kontua

Badira bi urte helduentzako euskal kontalarien zirkuitua sortu zela, ‘Heldu da kontua’ izenekoa. Ekimenaren baitan bi kontalari saritzen ditu epaimahai aditu batek, eta bi

kontalari horiek saioak eskaintzen dituzte aurrez lotutako lekuetan. Arrasateko bibliotekak egitasmo honetan parte hartu du aurten ere, azaroan helduentzako kontaketa saio bat eskainiz euskaraz, Joxe Aldasoro kontalariarekin.



*Joxe Aldasoro*

### **Idazketa tailerrak**

Berrikuntza bezala eta aurrekontuaren gehikuntza izan dugunez, aspaldi jaso genituen zenbait herritarren eskaerei erantzuna emateko, bi idazketa tailer burutu ditugu. Bata euskaraz izan da eta Miren Amuriza bertsolari eta idazlea aritu da irakasle lanetan; bestea gaztelaniaz izan da, Isabel Alba Rico idazlearen gidaritzapean. Tailer bakoitzak lau saioko iraupena izan du, otsailean hasi eta maiatzera arte, eta bietan itxaron zerrenda izan dugu.



*Miren Amuriza idazketa tailerlean*

### **Hitzaldiak**

Otsailean Ander Izagirrereren hitzaldia antolatu dugu bere azken liburuari buruz: *'Vuelta al país de Elcano'*. Ander idazlea eta kazetaria da ofizioz, eta txirrindularia eta bidaiaria afizioz,

eta hitzaldian bere ezagutzak eta bizipen interesgarriak partekatu ditu Areto Nagusira bertaratu diren 67 lagunekin.



*Ander Izagirre bere bidaien gaineko irudiak erakusten*

Martxoan, Emakumearen Egunaren bueltan, Raquel Manchado gonbidatu dugu. Oso emakume aktiboa da: artista, ilustratzailea, arte zuzendaria eta Antorcha Ediciones argitaletxeko editorea. Umore grafikoan eta kulturaren ematen diren misoginia eta indarkeria sinbolikoak ikertzen ditu, eta liburu eta fanzine interesgarriak argitaratu ditu. Emakumea eta arteari buruz egin dugun interes gunearekin lotutako hitzaldia eman du, *'De aquellos barro, estos lodos: la misoginia en el humor gráfico'* izenburupean.



*Raquel Manchado postalak banatzen eta liburuak sinatzen*

Irailean, Pertsona Nagusien Astearen baitan, Javier Sánchez Perón ikerlari eta irakasle

arrasatearraren hitzaldia antolatu dugu. Tokiko Bildumaren atalean eman dugu jarduera honen berri.

---

## HAURRAK ETA FAMILIAK

---

### Ipuin kontaketak

Urtean zehar haurrentzako ipuin kontaketak antolatzen ditugu bai Kulturaten, bai Santa Marinako auzo bibliotekan. Saio hauek adin desberdinetako hurrei zuzenduta egoten dira. Bertan izan ditugun kontalari batzuk hauek dira: Vanessa González, Maider Galarza, Ana Apika, Nerea Ariznabarreta eta Mariano Hurtado, eta Itziar Saenz de Ojer.

Orohar, oso saio arrakastatsuak izan dira, bai parte hartze bai kalitate aldetik.



*Ana Apika Kulturaten*



*Nerea Ariznabarreta eta Mariano Hurtado bikotea Santa Marinako auzo bibliotekan*

### **Mundutik Arrasatera**

2015. urtean jaio zen Mundutik Arrasatera egitasmoarekin aurrera jarraitu dugu aurten ere. Hiru eragilek parte hartzen dugu bertan: proiektuaren bultzatzaile den Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Ekin Emakume Taldeak eta Udal Bibliotekak. Helburua da herritarron elkar ezagutza eta aniztasunaren errespetua sustatzea.

Bereziki azken gai hau bultzatu nahian, maiatzean ipuin kontaketa saio berezi bat antolatu dugu, 'Aniztasunerako Clowntuak' izenburupean.



*Aniztasunerako Clowntuak*

## Antzerkia

Azaroan Ipar Euskal Herriko Kiribil konpainiaren *'Maiteder'* ikuskizuna izan dugu Areto Nagusian. Proposamen artistiko honek jatorri poetikoa du eta bereziki Xabier Lizardi eta Irène Colomb-Jacoben obretan oinarritzen da. 46 lagun bertaratu dira.



*Maiteder*

## Tailerrak

Urtean zehar gai anitzetako tailerrak antolatu ditugu haur eta gaztetxoentzat.

Otsailean bi komiki tailer egin ditugu Iñaki Martiarena *'Mattin'* ilustratzailearekin Santa Marinako auzo bibliotekan. Irakurketa kluba eta filosofia tailerrak ere eskaini ditugu, baina ezin izan ditugu gauzatu ez direlako taldeak osatu. Gabonen bueltan, pote-tapa apainketa tailerra antolatu dugu Kulturaten gure lankide baten eskutik. Gaztetxoen 2 talde osatu dira eta Goyeneche Fundazioko beste talde bat.



*Komiki tailerra Santa Marinaran*



*Tapa tailerra Goyenecheko lagunekin*

### **Mintzoan kux-kux**

2011z geroztik martxan daukagu Galtzagorri elkarteak abiatu zuen egitasmo hau, lehen *Bularretik Mintzora* deitzen zena. Proiektu honen helburu nagusia da haurrengan irakurketa ohitura indartzea. Hori lortzeko, haurrengan irakurketa guneak elkartzen dira: familia, eskola eta biblioteka, zirkuito bat osatuz. Izan ere, haurrak bibliotekara datoz egitasmoaren motxilareki eta liburu bat aukeratzen dute *Mintzoan kux-kux* txokoan. Etxean gurasoekin irakurri ostean, eskolan lantzen dute, eta han beste ikaskide batek hartzen du motxila liburuarekin, bibliotekara joango dena, zikloa berrituz etengabe. Horrekin batera, bazkide ez diren haurrei txartela egiten diegu momentuan, liburu maileguan hartu dezaten. Aurten 25 motxila berri erosi ditugu hondatzen edo galtzen diren neurrian ikastetxeei oparitzeko.

2023an, zehazki, Arrasateko ikastetxe guztietako 3, 4 eta 5 urteko hurrek parte hartu dute proiektuan; Herri Eskola eta Arizmendiren artean, guztira 24 ikasgela.

Ikastetxeek oso ondo baloratzen dute egitasmo hau eta oso arrakastatsua da, haur denak bibliotekara (Kulturatera edota Santa Marinara) eta irakurketara hurbiltzea lortzen dugulako, haien familiekin batera.



*Mintzoan kux-kux txokoa*

---

## OROKORRAK

---

### *'Hostoz hosto erantzi' erakusketa*

Aran Santamaria Zumaiako artistak sortutako erakusketa hau Kulturateko Klaustroan izan dugu apirilaren 21etik maiatzaren 19ra arte. Liburu zaharrak oinarri hartuta, pop up teknika erabiliz, liburu berriak osatzen ditu Santamariak; eta horretarako orri zabalgarriak, collageak, zuloak edota hariak bezalako teknikak erabiltzen ditu. Beti ere istorio berriak irudikatuz eta sormen lanak garatuz, paperezko istorioak eraikiz eta paperezko arkitekturan arituz.



Papera eta liburuak maite ditugunontzat, emaitza ikustea liluragarria da. Obrak poesiarekin jolasten du eta oso ondo egokitu dira artelanak Kulturateko Klaustrora. Aspaldi erakusketa bat antolatu gabe ibili bagara ere, jaso dugun balorazio positiboak bultzada handia eman digu etorkizunean berriz saiatzeko.

Gainera, erakusketaren osagarri gisa, bisita gidatuak eta familia tailerrak eskaini ditugu eta hauek ere harrera bikaina jaso dute.



*Aran Santamaria hurrekin erakusketaren gaineko tailerlean*

### **Liburuaren Eguna 2023**

Apirilaren 23a Liburuaren Nazioarteko Eguna da eta ospatzeko, hainbat jarduera antolatu ditugu.

Haurrentzat saio bereziak egon dira: Panta Rheyren *'Noa Uy, Uy, Uy'* txotxongilodun antzezlan saritua Kulturaten eta Susana Cencilloren *'Musika tailerra familian'* Santa Marinako auzo bibliotekan.

Helduentzat, berriz, *'Ipuina Engainua da'* ikuskizuna eskaini dugu Areto Nagusian, Iban Zaldua idazlearen eta Miren Narbaiza musikariaren eskutik. Irakurketa musikatu honetan, Zalduek bere *'Ipuina engainua da'* bildumako bizpahiru ipuin irakurtzen ditu Narbaizak interpretatutako lau abestirekin uztartuz.



*Miren Narbaiza eta Iban Zaldia*



*'Noa Uy, Uy, Uy' Areto Nagusian*

Programazioa iragartzeko, Habemus estudioak kartela eta eskura banatzeko postala diseinatu dizkigu.



## Bibliotekaren Eguna 2023

Urriaren 24a Bibliotekaren Eguna da eta ospatzeko, hilabetez zehar hainbat saio berezi eskaini ditugu.

Batetik, *Anonyme Popular* ikuskizuna antolatu dugu helduentzat. Igor Elortza bertsolariak eta Rafa Rueda eta Alvaro Olaetxea musikariek partekatzen duten proiektu honetan, primeran uztartzen dira bertsoa, rapa, popa edota funkya bezalako doinuak. Ikus-entzunezko bertso berriak, garaiari eta giroari jarriak, norbanakoaren egunerokotasunetik jendeari kantuan emateko.

75 pertsona bertaratu dira saiora, musika eta letrak oreka perfektuan erakusten dituen ikuskizun bikain honetara, bata bestearen osagarri eta aberasgarri. Gogoangarria.



*Anonyme Popular*

Bestetik, *Giza Biblioteka* ekimenaren 5. edizioa antolatu dugu. *Giza Biblioteka* da mundu mailako liburutegietan egiten den jarduera bat. Helburua komunitatea sortzea da, tolerantzia eta kohesio soziala garatuz. Horretarako, bibliotekak hainbat herritar gonbidatzen ditu beraien bizipen edota proiektuak partekatzera 10 minutuko elkarrizketen bidez, esperientzia hauek ezagutu nahi dituzten entzuleekin. Aurtengo edizioan 6 gonbidatu izan ditugu: Antxon Zabaleta arbolazaina, Désirée Ots Romero Gautena Gipuzkoako Autismo Elkarteko kidea, Xabier Herrarte erlezaina, Ixotz Louyest transexuala eta Moulay Ely Mohamed Elkhelil sahararra.





*Giza biblioteka jardueraren partaideak*

Haur txikientzat Amaia Egidazu eta Saroa Bikandiren poesia kontaketa eskainiko dugu Kulturaten, *'Poltsikorako poemak'* izenburua izanik beraiek sortutako poema sortan oinarritzen dena.

Santa Marinan *'Zientzia eta teknologia tailerra'* jarduera eskaini diegu familiei (10-14 urteko gaztetxo eta gurasoei). Tailer hau M<sup>a</sup> Luz Guenagak eman du, Deustuko Ingeniaritza Fakultateko irakaslea bera.



*STEAM tailerra Santa Marinako auzo bibliotekan*

Programazioa iragartzeko, Ibon Sáenz de Olazagoitiak kartela eta eskura banatzeko postala diseinatu dizkigu. Inprimaketa K3 enpresan egin dugu.

biblioteca

Urriak 24 · 2023

**BIBLIOTEKAREN EGUNA**

Urriak 20, ostirala - 17:00 (Santa Marina)  
**STEAM TAILERRA FAMILIENTZAT**  
 Zientzia eta teknologia jolasak  
 Juegos de ciencia y tecnología  
 N<sup>o</sup> Luz Guenaga  
 10-14 Urte, heldu batekin (Aurrez izena emanda / Con inscripción)

Urriak 20, ostirala - 20:00 (Kulturate)  
**ANONYME POPULAR**  
 Kontzertua  
 Igor Elortza eta Rafa Rueda  
 Helduentzat

Urriak 24, asteartea - 18:00 (Kulturate)  
**V. GIZA BIBLIOTEKA**  
**BIBLIOTECA HUMANA**  
 Bizitza istorioak / Historias de vida  
 Helduentzat - Para público adulto

Azaroak 2, osteguna - 18:00 (Kulturate)  
**POLTSIKORAKO POEMAK**  
 Poesia kontaketa / Poesias contadas  
 Saraa Bikandi eta Amaia Egidazu  
 4-7 urte (Aurrez izena emanda / Con inscripción)

kultur:ate

ARRASATEKO UDALA  
 AYUNTAMIENTO DE ARRASATE

ERROKO JARDUNALDIA  
 GOBIERNO VASCO

## Biblioporrak eta Neguko Gida

Inguruko liburutegiekin elkarlanean, urtean bi gida osatu eta argitaratzen ditugu liburu, pelikula eta diskoen gomendioekin. Zabalkundeari dagokionez, paperean zein formatu digitalean zabaldu dira, eta ikastetxeetan lehen hezkuntzako irakasleei banatu zaizkie.

Diseinua Gasteizko Habemus estudioak egin du.



### 2023/2024 ikasturteko eskaintza iragartzeko triptikoa



Triptiko bat kaleratu dugu ikasturteko solasaldien berri emateko, baita horren egokitzapena izan den kartel bat ere. Diseinua eta maketazioa Concetta Probanza ilustratzaile eta diseinatzaile urretxuarrak egin digu eta, inprimaketa, berriz, K3 Inprimategiak.



2023/24 ikasturteko programazioaren berri emateko triptikoa

## Irakur puntua

Bibliotekaren 2024ko egutegia eta ordutegia zehazten duen irakur puntua egin dugu, bai Kulturateko bibliotekari dagokiona, bai Santa Marinako auzo bibliotekarena. Urteetik urtera ilustratzailea aldatzen dugu eta oraingoan Amurrioko Yolanda Mosquerari enkargatu diogu lana. Maketazioa eta inprimaketa Ikuxkaren esku egon da.



## 2024 | biblioteka

URTARRILA	OTSAILA
1 2 3 4 5 6 7	1 2 3 4
8 9 10 11 12 13 14	5 6 7 8 9 10 11
15 16 17 18 19 20 21	12 13 14 15 16 17 18
22 23 24 25 26 27 28	19 20 21 22 23 24 25
29 30 31	26 27 28 29
MARTXOA	APIRILA
1 2 3	1 2 3 4 5 6 7
4 5 6 7 8 9 10	8 9 10 11 12 13 14
11 12 13 14 15 16 17	15 16 17 18 19 20 21
18 19 20 21 22 23 24	22 23 24 25 26 27 28
25 26 27 28 29 30 31	29 30
MAIATZA	EKAINA
1 2 3 4 5	1 2
6 7 8 9 10 11 12	3 4 5 6 7 8 9
13 14 15 16 17 18 19	10 11 12 13 14 15 16
20 21 22 23 24 25 26	17 18 19 20 21 22 23
27 28 29 30 31	24 25 26 27 28 29 30
UZTAILA	ABUZTUA
1 2 3 4 5 6 7	1 2 3 4
8 9 10 11 12 13 14	5 6 7 8 9 10 11
15 16 17 18 19 20 21	12 13 14 15 16 17 18
22 23 24 25 26 27 28	19 20 21 22 23 24 25
29 30 31	26 27 28 29 30 31
IRAILA	URRIA
1	1 2 3 4 5 6
2 3 4 5 6 7 8	7 8 9 10 11 12 13
9 10 11 12 13 14 15	14 15 16 17 18 19 20
16 17 18 19 20 21 22	21 22 23 24 25 26 27
23 24 25 26 27 28 29	28 29 30 31
30	
AZAROA	ABENDUA
1 2 3	1
4 5 6 7 8 9 10	2 3 4 5 6 7 8
11 12 13 14 15 16 17	9 10 11 12 13 14 15
18 19 20 21 22 23 24	16 17 18 19 20 21 22
25 26 27 28 29 30	23 24 25 26 27 28 29
	30 31

**Astelehenetik ostiralera / Lunes a viernes** 10:00-20:00  
**Larunbatean / Sábados** 10:00-13:00  
**Ordutegi berezia / Horario especial** 10:00-13:00 / 16:00-20:00  
**Udako ordutegia / Horario de verano** 10:00-14:00 / 16:00-20:00  
**Abuztua / Agosto** 9:30-14:30  
**Ordutegi murriztua / Horario reducido** 10:00-19:00

**MAILEGUA**  
Mota bakoltzeko 3 dokumentu. Liburuak 21 egun, besteak 7 egun.  
Berritu ditezke, ereserbarik ez badute.

**PRÉSTAMO**  
3 documentos de cada tipo. Libros 21 días, otros documentos 7 días.  
Se pueden renovar, salvo que estén reservados.



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

kultur:  
ate:

Archiekaila 1, 210500 Arrasate / Telefonoa: 943 25 20 25 / Whatsapp: 688 68 91 13 / kulturate@arrasate.eus / www.arrasate.eus/biblioteka

## Interes guneak

Funtsean, gai bat aukeratu eta haren inguruko materialak elkartzen dira hainbat euskarritan epe jakin baterako. Helburua da erabiltzailearen arreta eta interesa erakartzea, irakurzaletasuna sustatzea eta bibliotekako bilduma modu dinamikoan ikusaraztea.

Interes guneen aukeraketa egiteko irizpideen artean, kontuan izaten ditugu gaurkotasuna duten gaiak, urteurrenak, nazioarteko egun seinalatuak, idazleen heriotzak, eta abar. Lekuari dagokionez, bibliotekako gune desberdinak erabiltzen ditugu gai eta funts hauei ikusgarritasuna emateko. Interes gunean jasotako dokumentuekin gida bat argitaratzen dugu bai paperean eta baita web orrian ere.



Aurten 13 gai aukeratu ditugu.

### Interes guneak

- AEDk 40 urte
- Emakumeak eta artea
- Haurrak eta Internet
- Komiki biografikoak
- Mendizaletasuna
- LGTBIQ+ Nazioarteko Eguna
- Joan Mari Irigoien (1948-2023)
- Milan Kundera (1929-2023)
- Beti oporretan
- Nor da nor?
- Mendia eta zinema
- Film biografikoak
- Poesiaren Nazioarteko Eguna



*Bibliotekako gune desberdinetan jarritako interesguneak*

### Irakurketa Errazeko irakurle taldeak

Azken urteotan Goyeneche Fundazioko irakurle taldea dugu bibliotekan. Liburuak lortzen dizkiegu eta astearte goizetan biltzen dira haur bibliotekan irakurtzeko. Honez gain, EPA, San Juan de Dios eta Aita Menni ospitaletako zenbait talderi ere lortzen dizkiegu liburuak, baina talde hauek beraien egoitzetan biltzen dira.



*Goyeneche Fundazioko irakurle taldea*

### Bisita gidatuak

Bibliotekan bisita gidatu hauek prestatu eta aurrera eramán ditugu:

Non	Erakundea	Maila	Saio kopurua
Kulturate	Arizmendi Ikastola (Arimazubi)	LH4	2
	Arizmendi Ikastola	LH5-6	1
	Arizmendi Ikastola (Gazteluondo)	LH3	2
	Arrasate Herri Eskola (Erguin)	LH 4-5-6	2
	Arrasate Herri Eskola (Erguin)	DBH1	4
	Atartea	Helduak	1
	EPA	Helduak	2
Santa Marina	Arrasate Herri Eskola (Musakola)	HH 3, HH 4, HH 5	14
	Arizmendi ikastola (Santa Teresa)	LH3-LH4	2



*Bisita gidatuak haur eta gazte bibliotekan*



*Bisita gidatuak Santa Marina auzo bibliotekan*

### Santa Marinako auzo biblioteka ezagutarazteko kanpaina

Auzoko gaztetxoei biblioteka aurkezteko eta erabiltzaile berriak lortzeko asmotan, bisita gidatu berezi batzuk diseinatu ditugu Ana Apika eskarmentu handiko kontalariarekin batera. Jarduera ikastetxeekin elkarlanean gauzatu da; Arizmendi ikastola Santa Teresa gunekoak (LH 3 eta LH 4), eta Arrasate Herri Eskolako Musakolakoak (HH4 eta HH5ekoak).



*Ana Apika Santa Marinaran*



*Ana Apika Santa Marinaran*

## Poltsak eta boligrafoak

2016an, Udal Bibliotekak 50 urte bete zituenean, arkatzak eta poltsak egin ziren. Agortuta zeudenez, ekin diogu liburutegia ezagutarazteko marketin kanpaina berri bati. Boligrafoak Montte enpresak egin dizkigu eta poltsak Durangoko Bitakorak, Nagore Igarza "Ikuxka" antzuolarraren diseinuari jarraituz.



---

## JARDUERAK ZENBAKITAN

---

Hauek dira urtean zehar egin ditugun jarduera guztien emaitzak, zenbakitan adierazita. Azpimarratzekoa da azken urteetan lehiaketek erabiltzaileen artean hartu duten arrakasta.

	Saio kopurua	Pertsona kopurua
Jarduerak (solasaldiak, ipuin kontaketak, ikuskizunak, tailerrak)	76	1599
Bisita gidatuak	30	497
Lehiaketak	2	700
Guztira	<b>108</b>	<b>2796</b>

## ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA

Irakurketa sustatzeko jardueraz haratago, bibliotekan ez dugu ahazten komunitatearen ikuspegia. Egun, kontuan dugu espazio sozialak izatearen kontzeptua eta horregatik saiatzen gara herriko eragile desberdinekin gure partehartzea sustatzen, liburutegitik gizarte-kohesioa indartzeko eta eraldatzeko asmoarekin. Aurten, herriko zenbait eragilerekin elkarlanean aliantzak eraiki ditugu, esaterako:

### Garagune / Goyeneche Fundazioa

2023an elkarte hauekin batera hainbat egun esanguratsu ospatu ditugu. Talde bat liburutegira hurbiltzen da astean egun batean irakur puntuak egitera eta ondoren, erabiltzaileei oparitzen zaizkie. Horrela Martxoak 8a, Poesiaren Eguna, Movember, (prostatako minbiziaren aurkako prebentzioaren hilabetea), eta abar ospatzen joan gara. AED elkarteak 40 urte bete zituenean ere egin zituzten irakur puntu bereziak. Poesiaren egunean adibidez, euskal idazle eta ilustratzaile batzuei eskatu genien argazki bat, non elkarteak aukeratutako poema edo marrazkiarekin agertzen ziren.



*Leire Bilbao idazlea eta Maite Mutuberria marrazkilaria Goyeneche Fundazioko kideek bibliotekako erabiltzaileentzat egindako orri-markak erakusten.*

### Jokin Zaitegi Itzulpen Beka

Arrasateko AED eta Elkar argitaletxeak, Arrasateko Udalaren eta Laboral Kutxaren laguntzarekin, Jokin Zaitegi arrasatear idazlea gogoratzeko eta hark literatura unibertsala euskaratzen egindako ahaleginari jarraitzeko, Jokin Zaitegi Beka antolatzen dute, eta horrela Literatura Nobel Saria irabazitako idazle baten lan bat itzultzen da.


2023an AED elkarteak bibliotekako irakurle taldeari luzatu dio gonbidapena Abdulrazak Gurnah 2021eko Nobel saridunen “Paradisua” liburuaren pasarte batzuk irakurtzeko eta ekitaldi xume bezain ederra gauzatzeko aukera izan dugu.



*Jokin Zaitegi Itzulpen Sariaren aurkezpena AED eta solasaldietako irakurleen eskutik*

## Udalaren Sexologia Zerbitzua

LGTBIQ+ mugimenduaren nazioarteko eguna ospatzeko, gaiarekin lotutako dokumentuen gida argitaratu dugu Udaleko Sexologia zerbitzuarekin elkarlanean.



**Arrasateko Udal Biblioteka**

📍 Azoka kalea 1 - 20500 Arrasate  
 ☎️ 943 25 20 25  
 📞 688 68 91 13  
 ✉️ biblioteka@arrasate.eus  
 🌐 www.arrasate.eus/biblioteka

**Arrasateko Sexologia Zerbitzua**

📍 Biteri ibilbidea 3  
 Astelehena: 10:00-13:00  
 Osteguna: 16:00-19:00  
 ☎️ 747402140  
 ✉️ sexologia@arrasate.eus

*Gidaren azala eta atzeko aldea*

## Txatxilipurdi Elkarte

Aurten ere herriko elkarte honekin *Freskura* egitasmoan parte hartu dugu. Zehazki, udaran igerilekuan haur eta gaztetxoei maileguan uzteko irakurgaiak aukeratu eta helarazi dizkiegu: aldizkariak, komikiak eta ipuinak euskaraz. Oso ondo baloratzen dugu elkarlan hau bibliotekaren ohiko eraikinetik aparte gure liburuak erakusten baitira eta ohikoak ez diren erabiltzaileengana iristeko aukera dugulako.



*Freskura* egitasmoaren kartela eta Txatxilipurdi elkarteko begirale bat igerilekuan





## LANTALDEA

Urteko helburu eta erronkak lortzeko orduan, eta aurrekontu-mugak gorabehera, liburutegiek ezinbesteko baliabidea dute: pertsonak. Arrasateko bibliotekan zerbitzua eskaintzen da 8 langile finkorekin, lanaldi osoan. Horietako 5 langile A2 mailako bibliotekariak gara eta 3 langile C1 mailako liburuzain laguntzaileak. Hauetako liburuzain laguntzaile bat Santa Marina auzo bibliotekako langilea da.

Udan, auzo biblioteka itxi egiten da eta bertako langilea Kulturatera dator. Langileen oporraldian Kulturateko zerbitzua zabalik mantentzeko, liburuzain laguntzaile bat kontratatzen da bi hilabeterako.

Aurten bi liburuzain laguntzaile berri izan ditugu ordezkapen lanak egiten: Nerea Altuna eta Ruth Diez; azken honek jarraitzen du lan jardunaldi baten murrizketa betetzen.

Udalak urtero sinatzen du *Gureak* taldearekin *Pauso Berriak* programan parte hartzeko elkarlan hitzarmena. Horri esker, David Raso lankidea etortzen da lanera egunero ordu eta erdiz.



## PRESTAKUNTZA

Lan-bizitza aberasgarri baten osagai nagusietako bat jakin-min aktiboari eustea da. Gurean, informazioa eta dokumentazioarekin lan egiten dugunez, erabiltzaileak artatzeko eta gizarteak eskatzen dituen gero eta behar handiagoei aurre egiteko, ezagutzak etengabe eguneratu behar ditugu. Prestakuntzak gure begirada zabaltzea eskatzen digu edo beste erakundeek zer egiten duten jakitea. Euskadiko Komunitate Autonomoan ez dago informazio eta dokumentazio ikasketa arautuen eskaintzarik. Horregatik, elkarte profesionalen sareetara jotzen dugu heziketa gaurkotua jasotzeko orduan.

Zentzu horretan, Arrasateko bibliotekan ez dugu urteetan zehar ikasteko kuriositatea galdu, jarraitzen dugu prestakuntzaren aldeko apustu nabarmena egiten.

<b>Ikastaroa</b>	<b>Orduak</b>	<b>Langile kopurua</b>	<b>Antolatzailea</b>
Gazteen Irakurketa Ekintza Plana	3	1	Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzua
FESABID biltzarra	13	2	FESABID- ALDEE
<i>Liburutegi Imaginatua</i> liburu aurkezpena	3	1	ALDEE ELKARTEA
Inklusioa eta dibertsitate funtzionala	4	2	ARRASATEKO UDALA
Sensibilización y aplicación de criterios de igualdad de género y diversidad en bibliotecas	8	1	ALDEE
Udal Liburutegietako XI Biltzar Nazionala	15	1	Kultura Ministerioa
Cómo difundimos nuestras colecciones fotográficas con todas las de la ley	5	2	ALDEE
4. hizkuntz eskakizuna ikastaro trinkoa 2023	86	1	ARRASATEKO UDALA-EUSKARA SAILA
Bibliotecas y construcción comunitaria	12	1	ALDEE
Bisita profesionala: Habeko Liburutegia	2	1	ALDEE

## INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

### Kulturate

XXI. mendearen hasieran, begi bistakoa da teknologiak gizarte berri bat moldatzen ari direla. Sortzen ari den gizarte berri honetan herritarrak informazio eta komunikazio teknologiekin harreman estua eduki eta erraztasunez erabili beharko ditu, eskubide osoko kide izateko. Zentzu horretan, bibliotekako iazko ekipamendu berri gehienak teknologiarekin du zerikusia. Ekipamendu hau erosi da:

- 2 dvd irakurgailu maileguan uzteko, bat Santa Marina auzo bibliotekarako eta bestea Kulturateko liburutegirako.
- Barra-kode irakurle bat bazkide txartelak mugikorretik irakurri ahal izateko.
- Ordenagailu eramangarri bat liburutegirako eta beste bat Kultura sailerako.
- Teknologia egokitzapena auto mailegu makina batean, abiadura azkartzeko eta txartela mugikorrean daramatenak aukera hau erabili ahal izateko
- Tokiko bilduman jartzeko Arrasateko antzinako bi argazki eta bi planoen enmarkazioa.
- Ipuin kontaketak antolatzen ditugunerako haurrak esertzeko alfonbra bat.

Ekipamendua	
Azalera erabilgarria (m2)	1.400
Bildumarentzako apalak (m2) (sarbide librea/gordailua)	1.276/550
Irakurpuntuak	182
Ordenagailuak (publikoak/barnekoak)	22/10
OPAC( katalogoa kontsultzeko ordenagailua)	5
Inpresorak (publikoak/barnekoak)	4/4
Eskanerrak (publikoak/barnekoak)	2/3
Ordenagailu portatilak (publikoak/barnekoak)	5/0
Fotokopiagailuak (publikoak/barnekoak)	2/1
eReaderrak (publikoak)	12
Tablet (publikoak/barnekoak)	2/1
DVD irakurgailua (bertan ikusteko/mailegurako)	4/1
Wifi zerbitzua	Bai
Wifi bidez inprimatzeko aukera	Bai
Astean irekitako orduak	55,5

## Santa Marinako auzo biblioteka

Toki Argi izena duen eraikinak **33 urte** daramatza udal zerbitzuak eskaintzen. Bertan dago auzo biblioteka eta urtez urte berrikuntzak egiten joan gara. Aurreko urteetan kanpoko seinalizazioa bukatu genuen, ikusi baikenuen kasu askotan herritarrek zailtasunak zituztela zerbitzua non zegoen identifikatzeko (biniloak ipini genituen leihoetan eta kanpoko eta barneko ateetan). Aurten kanpoan kristalezko bitrina jarri dugu zerbitzuaren ordutegia eta egutegia argitaratzeko.

Auzo bibliotekak duen espazioa oso txikia da. Estandarrak 350 m<sup>2</sup> ezartzen ditu eta gure bibliotekak 46 m<sup>2</sup> baino ez ditu. Arazo honi aurre egiteko, barne hausnarketa prozesu batean gaude, konponbide egoki bat topatzeko asmoarekin.

Bestalde, ohiko aurrekontuaz gain, Next Generation dirulaguntzen bidez jaso dugun kopurua oso lagungarria izan da funtsa eguneratzeko.

Teknologia berriak erosteko izaten diren dirulaguntzen bidez DVD irakurgailu berri bat erosi dugu.



*Santa Marinako auzo bibliotekako sarrera*

Ekipamendua	
Azalera erabilgarria (m <sup>2</sup> )	46
Bildumarentzako apalak (m <sup>2</sup> ) (sarbide librea/gordailua)	51/3
Irakurpuntuak	20
Ordenagailuak (publikoak/barnekoak)	2/1
OPAC( katalogoa kontsultatzeko ordenagailua)	0
Inpresorak (publikoak eta barnekoak)	1
Fotokopiagailuak (publikoak eta barnekoak)	1
eReaderrak	1
DVD irakurgailua	1
Wifi zerbitzua	Bai
Astean irekitako orduak	17,5

## FINANTZAKETA

Arrasateko bibliotekan eskaintzen ditugun zerbitzuak doakoak dira, baina liburutegi publikoak Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuaren eta tokiko administrazioen erantzukizuna dira. Liburutegietan inbertitzea ez da alferrikako gastua, aukera berdintasunaren aldeko ekintza da. Liburutegien aldeko politikak dira etorkizuneko inbertsiorik onena, gizarte kohesioari bultzada emango diona.

Finantzaketa alorrean, azken bost urteetako bilakaera erakutsi nahi dugu.

Azken bi urteetan material bibliografikoa erosteko Kulturaten dagoen bibliotekaren aurrekontua 40.000 €-koa izan da, eta, halere ez dugu betetzen bildumari dagokion estandarra.

Horregatik, gure liburutegietako funtsek erreferentziazkoak izaten jarraitu dezaten, irakurleei eskaintza zabal eta anitza eman nahian eta atzera pausuak ez izateko, 2022ko udazkenean kaleratu zen Europar Batasunak finantzatutako Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan liburutegietako funtsak berritzeko edota handitzeko NEXT GENERATION EU dirulaguntza berrira aurkeztu ginen.


Arrasateko udal bibliotekak, 2022ko abenduaren 22an argitaratutako ebazpenaren arabera, 7.160,00€ jaso zituen bi zatitan banatuta: Santa Marina auzoko bibliotekak 3.580,00 € jaso zituen eta liburutegi zentralak beste 3.580,00 €.

Kulturateko liburutegiak jasotako dirulaguntza udalak jaso zuen Sarreran kontu sailean; auzoko bibliotekan egoera paradoxikoa sortu zen, jasotako dirulaguntzaren zenbatekoak auzoko liburutegiak zuen urteko aurrekontua gainditzen baitzuen. Beraz, aurrekontuaren gehikuntzaren eskabideari erantzunez, dirulaguntzaren zati handi bat zuzenean auzoko bibliotekan geratu zen.


Eskuraketa bibliografikorako Arrasateko liburutegiak 11.341 € jaso ditu Eusko Jaurlaritzatik. Udalak 28.659 € jarri ditu.

Santa Marina liburutegiak 2023. urtean gehikuntza nabarmena izan du; azken urteetan lehenengo aldia da auzo bibliotekak 5.000 euroko muga gainditzen duela, guztira 5.282,13 € izan ditu.

### Eskuraketa bibliografikorako finantzaketa




### Santa Marinaran eskuraketa bibliografikorako finantzaketa



Irakurketa ludikoa sustatzeko eta diziplina artistiko ezberdinen bitartez publikoa literaturara eta bibliotekara gerturatzeko jarduerak antolatzen ditugu; ekintza motak ezagunak eta iraunkorrak dira -literatura solasaldiak, ipuin kontaketak, liburu aurkezpenak, hitzaldiak-. Azken urteetan ekintzak burutzeko aurrekontua 20.000 €-koa izan da eta zaila egiten zitzaigun irakurzaletasuna bultzatzeko eskaintza zabala gauzatzea. Lehen aldiz, 2023. urtean aurrekontua bikoiztu zaigu eta 40.000 €-ra iritsi gara. Irakurketa sustatzeko jardueren finantzaketa modu honetan gauzatu zen 2023an: Arrasateko udalak 35.446,85 € eta Eusko Jaurlaritzak 3.856 €.

### Irakurketa sustatzeko jardueren finantzaketa



Teknologia berriak ezartzeko edota garatzeko dirulaguntza jaso dugu Eusko Jaurlaritzatik. Ekipamenduan aipatutako gastua 2.374 €-koa izan da. Hortik, Eusko Jaurlaritzak 2.136 € jarri ditu eta Arrasateko Udalak 238 €.

## LIBURUTEGI PUBLIKOEN ESTANDARREN BETETZE MAILA

20.000 biztanletik gorako udalerrietako liburutegi publikoek Eusko Jaurlaritzak onartutako 11/2007 Legeak ezartzen dituen zerbitzu batzuk bete behar dituzte.

Arrasaten estandarren garapena horrela jasotzen da:

<b>Adierazlea</b>	<b>Arrasateko udal bibliotekan</b>	<b>20.001etik 30.000ra biztanleko herriak</b>
<b>Zerbitzuguneak</b>	Liburutegi nagusia + haur eta gazte liburutegia	Liburutegi nagusia + hiri liburutegi 1
<b>Azalera (m2)</b>	Kulturete: 1.600 m2 Santa Marina:46 m2	Liburutegi nagusia: 1.500 Gutxieneko eremua: 350
<b>Sarbide libreko funtsak</b>	55.087 dokumentu	44.000 dokumentu
<b>Eskuratze indizea</b>	Bildumaren % 8	Bildumaren % 10
<b>Sarbide informatikoa</b>	Kulturete: 23 Santa Marina: 2	Liburutegi nagusia: 20 Hiri-liburutegiak: 10
<b>Langileak</b>	8 langile	11-14 langile
<b>Astean irekitako orduak</b>	55,5	60-70



## ONDORIOAK ETA LAN LERROAK

Memoria honetako datuen irakurketak ondorio hauetara eramaten gaitu:

Bildumari dagokionez, nahiz eta ez heldu estandarrek ezarritako kopurura, nahiko gertu gaude eta esan genezake gure bilduma eguneratua dagoela eta erakargarria dela. Horren adierazle dira dokumentuen maileguen igoera eta, baita ere, beste liburutegietatik egiten dizkiguten eskaeren gorakada.

Irakurketa suspertzeko jarduerak bikoiztu dira, ia astero programatzen ditugu bizpahiru ekintza. Saio hauek oihartzun handia izan dute, parte-hartzaileen balorazioek eta zenbakiak adierazten duten bezala. Aurten erabiltzaileek igarri dute jarduera puntual eta finkotik haratago joan garela eta ekintza kultural gehiago izan ditugula, hala nola, erakusketa bat, idazketa tailerrak eta solasaldi edo ipuin kontaketa gehiago.

Liburutegiko azpiegitura teknologikoa gero eta gehiago erabiltzen da. Kontuan izatekoa da aurten 16.542 saio burutu direla eta 33.707 orri inprimatu direla. Eskaner eta inprimaketa zerbitzuak oso erabiliak dira. Teknologia herritar guztien eskura jartzea izan behar da gure helburua, beti ere, tresneria eguneratu eta funtzionamendu egokiarekin.

Hau da gaur arte dugun argazkia. Aurrera begira hauek liriateke lan lerro nagusiak:

Liburutegien kudeaketan garrantzitsua da planifikazioa; horregatik, 2024an Plan Estrategiko bat osatuko dugu. Proiektu honek *Zerbitzu Gutuna 2020-2022* dokumentuarekin hasitako filosofiari erantzuten dio. Helburuak eta lan ildoak finkatuko ditugu; horrela, herritarren beharrei hobeto erantzuteko gai izango gara eta, erakunde moduan zorrotasuna eta gardentasuna irabaziko ditugu.

Santa Marinako bibliotekak jarraitzen du espazio behar handiarekin, 46 m<sup>2</sup> besterik ez du eta zerbitzuak azalera gehiagoko tokia behar du. Oso urrun gaude estandarrek agintzen digun gutxienez, 350 m<sup>2</sup> alegia. Zerbitzua eskaintzen 33 urte gabiltzanean garaia da hausnartzeko eta planteamendu berriak egiteko: gaur egun instalazioak baliagarriak ote diren eta nola egokitu XXI. mendeko premietara eta zereginetara.

Txosten honetan mahaigaineratu ditugun erronka hauek gertuago daude Arrasateko udal bibliotekako langile taldeak duen jarrera aktiboari esker. Erabiltzaileei zerbitzu on bat ematea da gure lehentasuna eta horregatik, herritarren ekarpenak entzuteko eta kontuan hartzeko ahalegina egiten dugu.

## BIBLIOGRAFIA

- 11/2007 Legea, urriaren 26koa, Euskadiko Liburutegiei buruzkoa

<https://www.legegunea.euskadi.eus/webleg00-contfich/eu/contenidos/ley/bopv200706288>

- Euskadiko liburutegi publikoen 2012ko estandarrak

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicacion\\_profesional\\_biblio/eu\\_def/adjuntos/estandarrak\\_LP\\_2012.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicacion_profesional_biblio/eu_def/adjuntos/estandarrak_LP_2012.pdf)

- Gonzalo Oyarzún: *Liburutegi imajinatua. Komunitateak eriteko lorategia*. Donostia: ALDEE, 2023

- Euskarazko argitalpenei buruzko XVII. Txostena

<https://www.euskadi.eus/eusko-jauriaritza/-/2023/euskarazko-argitalpenei-buruzko-xvii-txostena-2021/>

- IFLA-UNESCO Manifestua, Liburutegi Publikoei buruzkoa (2022)

<https://www.aldee.eus/eu/dokumentuak/>